

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Une akustikoa.
Keu Agirretxea.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 22'44".
11,50 euro.

Xamurtasunez asetzeko gaitasuna

ONDARRUTAR honek ibilbide oso luzea dauka musikagintzan. Doinu gogorretatik abiatuta –Psychophony, Etsaiak...– rockean ere ibilia da –Fjord, Uek...–, baina orain dela urte gutxi arte gitarra zen bere esparru nagusia, bide batez, ederto menderatzen duena. Aspaldian, baina, abesteari ere ekin dio; eta aldaketaren aldeko apustu sakona egin du: bakarlari moduan diskoa grabatu eta jotzen dihardu. Zazpi kantu

xume baina hunkigarri idatzi ditu, hurbilak, ederrak, metaforaz eta sentsazioz beteak; musika konposatzeaz gain, hitzak idazteko ere trebezia badaukala erakutsi digu. Pop musika eta folka, jazzarekin, flamenkoarekin eta rockarekin tamaina desberdinean aberastua. Are gehiago, bakarrik batzutan, eta beste batzuetan baxuak zein txeloak lagunduta, kantuek intimitate eta gorputz berezia hartzen dute.

Keu Agirretxea

«Agertokian gitarrarekin bakarrik abestu behar baduzu, gauzak argi izan behar dituzu»

Bakarlariren ezaugarri bat da zentzu askotan biluzten direla. Zu izenetik hasi zara...

Azken urteetan Uek talde bat bihurtu da eta desberdindu egin nahi nuen, horregatik izenarena. Uek-en geldiuena beharrezkoa zen, zirkuitua txikia da eta jadanik bi urte eta erdi egin ditugu jotzen jarraian: bi diskoekin 70 kontzertu egin ditugu.

Orain arte doinu gogorrei, esperimentazioei eta rockari eman diozu. Xamurtasuna eraginkorragoa da?

20 urtetan rock taldeetan ibili naiz, 11 disko grabatu ditut, mota guztietako kontzertuak egin ditut. Badakit zer den rock talde batean egotea, baina beste gauza asko ere ikusi nahi ditut. Disko honek behar nuen aldaketa eman dit: lasaiago funtzionatzen dut, emanaldiek beste intentsitate bat dute, jendearrekin harreman zuzenagoak... Buelatuko dira soinu gogorragoak, ez dago presarik.

Nabaritzen da abesten gero eta hobeto moldatzen zarela eta gehiago arriskatzen duzula...

Hiru urte dira Uek-ekin abesten hasi nintzenetik eta asko ikasten ari naiz. Baina, gaur egun formatu

akustikoarekin nire ahotsa deskribitzen nabil. Agertokian gitarrarekin bakarrik zaudela abestu behar baduzu, gauzak argi izan behar dituzu.

Melodiak gogoratzen kantuan abesti zaharren gaineko bilaketari buruz idatzi duzu. Nolako da buruan daukazu melodia berreskuratu eta kanta osatzea?

Gehienetan melodia batek ematen dit hasiera, eta batzutan gitarra zati batek. Mugikorrean grabatzen ditut ideiak, denbora asko pasatzen bada ahaztu egiten zait-eta; bestela, sekula ez da izaten hasierako ideia berdina.

Zure zain aitatasunarekin lotuta dago, ezta?

Bai, Nora alaba jaio baino hilabete batzuk aurretik egin nuen; momentu horretan sentimendu eta sentsa-

zio asko izaten dira; aitatasunarekin zerbait aldatzen da, sentsazio berriak bizitzen dira eta konposatzeko orduan abestietan nabaritzen da. ■

